


AMAMAREN ABERTXOAK



Liburu hau
Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza Sailak
onartu dau.

AMAMAREN ABERETXOAK

BIBIÑE PUJANA

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Bibiñe Pujana

Marraskilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Deposito Legal: BI-1658-1983

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal

OTSITO
eta
KATUTXOA

Amamaren baserrian Otsito izeneko txakur polit bat bizi zan. Bere urre-koloreko ulea beti garbi eta astin erabilten eban, baita bere musturtxoa be; goizero, ohetik jaiki eta lehenengo beharra txukuntzea izaten zan.



Otsito ez zan kate batetik lotuta egoten, ez, inguru guztietatik ibiltzen zan; behin, etxe-ko-andreari kortako txitak uxatuten eutsazan, behin usoakaz olgetan hasten zan.

Jatorduetan barriz ugazabaren hanka ondoan etzunda jartzen zan eta gogo handiz jaten ebazan honek botatzen eutsazan hazur, azal eta danetarikoz guztiak.




Etxe haretan, Pintatxo izeneko katu bat be bizi zan. Pintatxo eta Otsito nahiko ondo konpon-tzen ziran, nahiz eta jatorduetan bata bestearengandik urrin egon behar. Urrumuzkada garratzak egiten eutsazan Otsitok, oilasko hazurrak jaten egoan bitartean hurreratu ezkeru.



Eguerdi baten, Otsito, beti bezela, bazkaltze-ko ordua zala eta, mahaipera joan zan. Pintatxo ez zala agertzen eta arduratzen hasi zan.

—Ene bada! zer jazo ete jako? Goizean kortan ikusi dot esne epela edaten eta arrezkero...

“Kopau” bat jan eta bizkor joan zan lastatirantz katutxoa bilatzen.



JESSE 83

—Pintatxo! Pintatxo! —deitzen eutsan abots txanpalagaz. Baina Pintatxok ez eutsan erantzuten.

Etxeko zulo guztiak arakatu arren, alperrik.


Azkenean, auzoko lastatira joatea gogoratu jakon.

—Ene! zer ikusten eban! Pintatxo eta 6 katakumetxo alboan.



Astiro astiro hurreratu jaken eta katutxoak
laztanten hasi zan.

—Otsito —esan eutsan Pintatxok— zure txaku-
rra lehengo astean hilda jaio zan ezkerro, hari emon
beharreko titia, nire katutxo bati emon beharko
deutsazu; nik danentzat beste ez daukat eta.



—Bai, pozik be! —erantzun eutsan Otsitok be-larriak astin-astin eginda; eta bera lako urre koloreko katutxoari musturragaz zaputzetik heldu eta bere etxera eroan eban.

Lastatiko bedartzan habi bero-beroa egin eutsan; gero, titia emon eta bertan itzi eban lotan.



Egunetik egunera, katutxoa haziz joian eta bakarrik ibiltzeko modukoa egin zanean habitik ur-teten hasi zan.

Otsito nora, bera hara ibiltzen zan beti; okanen bat aurkitzen ebenean itzalezko olgetak be egiten ebezan.




Behin, Otsito bere ugazabagaz mendira joan zan. Katutxoak be joan gura izan eban, baina...

—Ez, zu etxean geldituko zara, azagari asko dabil basoan eta...! —esan eutsan Otsitok.

Ilunkeran, katua basorantz joan zan ugazaba eta Otsitori urteten.


Urrinean ugazabaren iluntasuna ikusi eban. Baina esan eikean bakarrik etorrela.



Ondoratu jakonean esan eutsan katuari.

—Otsito erbi baten atzetik lexar artera sartu da eta arrezkero ez dot gehiago ikusi. Berak etxera bidea badaki bai eta etorriko da.


Hurrengo egun guztia egon zan katutxoa Otsito begira baina ez, ez zan agertu.



Egunak igaro ziran, baita negu edurtsuak
be...eta...Otsito ez zan agertzen.

Egun baten, lukainka bat eta ogi zatitxoa har-
tu eta basora joatea erabagi eban katutxoak.

Asko ibili ondoren, nekatuta egoala ta, zu-
gaitzpe baten lo gelditu zan.



Lo gogorrearan egoala, urrunean entzun zan
ulu handi batek itzartu eban.

Biboteak arteztuteko asti barik, zugaitz gane-
ra igon behar izan eban.

Bost azagari goseakilik beraganantz etozan.
Atzeratxogotik beste bost otso be bai.

Dar-dar pago ganean egoan, zer egin ez ekiala eta halako baten, miauka hasi zan.

Bat batean, behean egoan otsoetariko bat zaunkaka hasi zan.

Berehala alkar ezagutu ziran. Katua zugaitzetik jatzi eta besarkada baten batu ziran.



JESSE-83

Gero Otsitok otsoekaz bizi izan behar eban denporaldi horretan zer egin eban kontau eutsan eta, han egozan abere guztiei agur eginda, etxeko bidea hartu eben.

“Handik atzine” “ZU NORA-NI HARA” ibilten ei ziran.




OILANDA BALTZA

Behinola, oraindik oiloak solorik-solo ibiltzen ziranean, amamaren etxeko oilorik bizkorrena, "Gangargorritxo", etxetik desagertu egin zan.

—Non dagoan baneki, arto garau batzuk eroateko, —esaten eban kukurrukuak.

Betiko moduan, arrautzak esarten toki bereziren baten egongo da, —erantzun eutsan oilotegiko oilorik zaharrenak.




Eta, ez eukan errazoi faltarik. 21garren egunean agertu zan; atzetik 13 txita ekarzan; 12 zuri-zuriak eta 1 baltz-baltza.

—Egunon oilar eta oilo! —esan eutsen txita baltzak.

—Egunon, baina non egon zara? —itaundu eutsan oilarrak "Gangargorritxori".

—Han, ikopeko otatzan egin neban habia eta... begiratu zelako txita politak atara dodazan.




—Bai, baina otara igoten ikasi arte lo kortako zanean egingo dozue, azagari asko dabil eta.

Baietz erantzun eta orea jaten asi ziran.

Egunen joan etorriaz txitak, oilanda eta oilas-ko egin ziran.


Baltza oilandea zan eta, zelako galanta gainerra.



Geldi egon ezinekoa be bazan eta, mundua ezagutu behar ebala gogoratu jakon.

Goizalde baten danak lo egozala, ixil-ixilik otatik jaitzi eta bidetik zehar joan zan.

Pozik eta alai joian, bidean agertzen jakozan abere guztiak agurtuz.




JESSE-83

Eguerdirantz gosetu egin zan eta, artotza batera joan, baina laster etorri jakon bertako ugazaba akilu handiagaz eta uxatu egin eban.

Lehengo bidetik joan eta joan eginda mendi baten gainean etxe zuri bat ikusi eban.

—Bertara joango naz —esan eban bere arterako.


—Etxe hori azagariena da, —esaten eutsien txoriak.



Baina oilandea ausartia zan eta jaramonik egin barik etxe zurirantz joan zan.

Bertara heldu zanean, "bada-ezpada" be etxe aurrean egoan artera igon eban, handik, etxe barruan zer jazoten zan ikusteko.


Laster ikusi ebazan, bertako bizi lagunak, 5 azagarikume, baina ze gauza harrigarria 4 pinttoak ziran eta 1 baltz-baltza, bera lakoxea.



—Ene! Hemen dago aurrerantzean nire laguna izango dana —pentsau eban bere arterako.

Egoan artetik leihoraino salto bat egin eta azagaritxoari begira jarri zan.

Azagariak laster asmau eben oilandea eta buztanak mogitzen hasi ziran.



JESSE 83

Orduan oilandek esan eutsien:

—Kakaraka, kakaraka
hona hemen, oilanda baltza.

Azagari baltzak erantzun eutsan:

—Kekereke, kekereke
hona behera etorri zaite.

Barrero oilandek:

—Kukurruku, kukurruku
horra banoa jango nozu.

Eta azagariak

—kikiriki, kikiriki
ez daukat nik gaur goserik.



JESSE '83

—Holan bada —esan eban oilandek— jatziko naz.

Joan zan ba eurak egozan tokira eta olgetan hasi ziran. Halako baten esan eutsan azagaritxo baltzak.

—Gure ama etortzeko ordua da eta barrero zuzgaitzera igon beharko dozu, ostantzean jango zaitu.


—Ez —erantzun eutsan oilandek— mundua ezagutzeko urten dot etxetik eta banao hortik zehar.



Apur baten pentzitzen egon eta esan eutsan azagari baltzak.

—Zugaz joango naz ni be, mundua ezagutu gura dot eta.

Urten eben ba biak eta tipi-tapa, tipi-tapa be-rezi bateraino heldu ziran. Gaua gainean egoan eta, iluntasunean ia ikusi be ez ziran egiten.



Halako batean bereziaren erdian argitxoa ikusi eben. Joan ziran ba bertaraino eta aiba! mutiko koskor bat zan; bere eskuetan kurtsulua eroian.

—Gaua igaroteko toki epel baten bila gabiliz esan eutsien biak batera.

—Ba, ni txiroa naz, baina gura badozue nire txabolan toki bat itxiko deutsuet —erantzun eutsen mutikoak.



Joan ziran ba hirurak. Oilandea portaleko zuzgaitzean gelditu zan, azagaria barriz, txabolako ate aurrean eta mutikoa lastamarragezko ohean, barruan.


Hurrengo goizean, oilandea eta azagaria itzartu ziraneko prest eukan mutikoak gozaria.



Bete-bete egin ziranean, nagitu egin ziran eta egun batzuk bertan igarotzea pentsau eben.

—Ni laster arrautzeginen hasiko naz eta zer jan ez jatzue faltako —esan eutsan mutikoari oilandeak.

—Ba nik ardiak zaintzen ikasito dot eta txakurrik ez dozu beharko— esan eutsan azagariak.




JESE-83

Pozik-be pozik egoan mutikoa, jazotzen jakona sinistu ezinik.

Igaro ziran egunak, baina oilandea eta azagara hain ondo aurkitzen ziran... betirako bertan gelditzea erabagi eben.

Handik aurrerantza alai eta zoriontsu bizi ziran berezi haretan.



UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Felix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUAMETS, Juantxu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Felix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Felix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Edurne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREA, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramon Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 20.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 21.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria

